

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abuztuak 20 / III. urtea / 89. zenbakia

## Kartzelaren ondorengoak

Batzuek ez daukate deus, ez familiarik, ez dirurik, ez etorkizunik. Frankotan kartzelara itzultzen dira, baina gutxienekoak dira, hori saihesteko ari baitira lanean bai barruan bai kanpoan. Gizarte Laguntzarako Batzordea inor preso hartzen dutenetik osoko askatasuna lortzen duen arte arduratzen da gizartean normaltasunez bizitzeko prozesuaz, eta horri esker denek dute gutxieneko soldata, eta batzuetan, baita lana ere. Gutxi ezaguna Nafarroan, beraiek ezagutzen dituzte inork baino hobeto kartzelako egoera eta presoen arazoak, eta Iruñeko espetxe zaharri leporatzen dizkiote arazo gehienak, «zeharo desegokia» baita beren lanerako. Ez dira presondegien guztiz kontrakoak baina zenbait arazo bertan ezin direla konpondu nabarmentzen dute, eta laguntza, laguntza, eta laguntza aipatzen dute beti. «Izan ere, zigorrak ez baitira zigortzeko, presoak gizartekotzeko baidizik».



### Zubian barna



BINGEN AMADOZ

**A**bsurdia izan da beti mendiari atariak jarri nahi izatean, nahiz eta batzu horretan behin eta berriz saiatu. Halaxe zapaltzen dugun luraren azpitik ura ateratzea baino nahiago dute gure agintariek, proiektuak ongi borobiltzen omen dakiten horiek, mendiari ateari jarri eta betidanik libre ibilitako ura biltzea.

Oraingo honetan Agoitzaldea urpean sartu nahi dute. Diru mordoak gastatzeko prest agertu dira Madril nahiz Iruñeko administrazioak, hain beharrezko duten urtegia eraikitzeko. Inor gutxi ez dio halere urtegi horri egiazko helbururik edo, hobe esanda, helburu garbirik ikusten. Hasiera batetan milaka ta milaka hektarea ureztatzeko erabili behar zen ura. Hektarea kopurua jeisten joan zen gero, ezpaita inorren sekretua nekazaritzak toki guztietan jasaten duen hondamena. Herri-Behean geroz eta gutxiago dira nekazaritza-lanetara dedikatzen direnak eta geroz eta gehiago, ordea, landu gabe geratzen diren lurak, baina hortxe segitzen dute esaten ura Nafarroan geratuko dela eta gainera Herri-Beherako lurak egarri direla.

Entzun da ere azkenean Iruñerriak edan lezakeela Itoizko ura. Nik uste nuen nahikoa genuela sekulan hutsik egin ez digun Eugiko urtegiarekin eta Artetako iturria oraindik ere lehortu gabe dagoela. Iruñea, biztanlez ez dihoa gora eta Iruñerria bera ez dut uste laister New-Yorken modukoa bihurtzeko dagoenik ere. Baina, nunbaitetik eman behar zaio sinismena absurdoari.

Nafarroako autobidearen eraikuntzarekin ederki aberastu ziren batzu eta ongi estutu zitzaion Nafarroari diru-ondasun publikoa. Zertarako eta hainbat urteetan zehar Europa osoan gutxi erabiltzen zen autobide dotorea edukitzeko. Etorri dira gero autobien modak eta egun oraindik ere oso gutxi erabiltzen da Iruñetik behera autobidea eta Herri-Behera eta Erdikaldeko biztanleek diru politikak ordaindu behar izaten dituzte nahi baldin badute autobidetik joan.

Beldur naiz ez ote den gauza bera gertatuko Itoizko urtegiarekin. Baina ordurako erremediorik gabe desageraturik izanen dugu mende eta mendetan zehar gizaki eta bizirik dagoen ororentzat horren babesleku ederra izandako eskualde oso bat. Eta zeinek itzuliko die Itoitz eta Orbaizko elizei beren edertasun xumea? Nork ekarriko argia Artozkiko karriki? Txintxurri-nea eta Nagoreko arroilak ez dira ordan guretzat gozagarri izanen eta beti bezala gauza eder guztiak eta jendearen sentimenduak bost axola zaizkien bihotzgatuek ongi beterik izanen dituzte sakelak, bideraturik beren ustelkeri eta interes politikoak eta gutxi batzuren harrapakariak itzala inposatuko dio eguzkiari.


## Gure aukerak

# Mendi Laua

Gustua hartu diogu Tafallari, eta asteburu honetan ere ez gara handik aterako. Zeru ateriko egunotan pakea eta la-saitasuna ematen dute paisai hauek, eta, laborea behin bilduta, herri orotan duela gutxi ez zeuden usain eta gogoak daude orain, naturarekin duten harremana beste urtebetez betea.

Tafallatik Miranda-Argara doan errepedearen ondotik Mendi Laua dago, izen berak adierazten duen bezala, lautada batean dagoen basoa, ez mendia baina. Mendiak, askotan, basoa esan nahi baitu. Bertan kokatzen zen duela gutxi arte Nafarroako artedirik nagusienetakoa, inguru osoa laborez gainezka dagoen toki batean. Egun, soilik arrastoak gelditzen dira, laboreak, hain zuzen ere, gero eta gehiago jan izan baitu.

Resano iturritik, bi norabide hartzen du bideak: bata Ihitzia-uren urmahelara daramana, eta bestea Mendi lauara eramaten gaituena. Urmahel honek 13 Ha. dauka, eta, teoriak, babes osokoa da. Ez da oso sakona, eta udan lehortu egiten da. Aurten euriak izan dira, baina litekeena sikua aurkitzea. Hori dela eta, ez da bertan arrainik. Ugaztunek asko erabiltzen dute eta azkene-



tako azterketa 40 bat hegazti mota atzeman ahal izan ziren.

Mendi lauaren bidea hartuz gero, saien jantokiaren aztarnak ikusi ahal izango ditugu lehen-dabiziz. Aspaldian ongi zaindu eta kontserbatutako jantokiak, utzikierak egoera tamalgarrian utzi du. Hortik aurrera, bide nabarmenetik mendira helduko gara. Lehen ongi zaindua, bizi-lagunen aprobetxamenduek —bazka ganaduarendako, eta egurra etxeendako— garbi

mantentzen zuten, baina duela zenbait urte batere arretarik gabe moztu eta jorratu egin zen, eta eremu zabalak galdu egin ziren. Azken urteotan, baina, berreskuratzen ari da jatorrizko itxura. Aurreraxeago beste urmahela aurkituko dugu, artifiziala hau. Itzultzean zonalde zabal oso hau menderatzen duten zelaien edertasuna antzeman ahal izango dugu, uzta bilduta egonda ere, barrurako lasaigarria dela baitiote.

## ERAKUSKETAK



**Xabier Soubeleten** margo erakusketa izanen da ikusgai Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

**Gaur egungo** pintore tafallartarrei buruzko erakusketa dago paratuta Garces de Los Fayos Tafallako Kultur Patronatoaren Erakusketa Aretoan. Hilaren 5tik 22ra izanen da ikusgai.

**Erloju Zaharrei** buruzko erakusketa bitxia dago paratuta Zangozako Udaletxean, eta hil osoa bitartean.

## ZINEMA



«**Abys**» izeneko pelikula ikusgai izanen da Irurtzunen heldu den asteazkenean, hilak 25, udan kanpo aldean antolatu den zikloaren barruan.

«**El ultimo mohicano**» izeneko pelikula ikusi ahal izanen da Zuñigan bihar, larunbata, 22.00etatik aurrera.

«**Eduardo Manostijeras**» izeneko filme ikusi ahal izango da bihar larunbata, hilak 21, Lapoblacionen.

## ANTZERKIA



«**Betiko antzerkera** etorri» izeneko zikloa zabaldu da Korellan, «Teatro Eslava» taldearen laguntzarekin, eta atzodanik heldu den asteazkenean arte egunero antzezlan klasikoak ikusi ahal izango dira Blas de la Serna antzokian, gaueko 9.30etan. Gaur, horrela, Alfonso Pasoren «Vamos a contar mentiras» izango da ikusgai, eta bihar, larunbata, «Dos paletos en Madrid», Pedro Muñoz-Secarena.

«**Zalapartaka**» izeneko lana eskainiko du gaur ostirala, hilak 20 Trokolo taldeak, Arribeko herriko plazan. Emanaldia gaueko 10etan hasiko da.

«**Kiki, Koko eta Moko**» antzezlan aurkeztuko du heldu den igandean, hilak 22, Azkona taldeak, Alesbesko udal igerilekuan, eta arratsaldeko 8.30etatik aurrera.

## AHAZTU GABE!

«**MUCHO SUEÑO**» izeneko antzezlan ikusi ahal izanen da Zangozan, Lizarran eta Altsasun heldu den astean, Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan. Ulen Spigel Teatro taldeak bost pertsonai jartzen ditu taula gainean, bost pailazo, hain zuzen ere, irudimenaren mundu irrealtera eramaten gaituztenak. Ikuskizun samur eta dibertigarria da lan hai, eta pertsonaiak maitagarriak, tolesgabeak, zoroak... Ikusgarriak dira jantziariaren zenbait elementu: sudur bitxiak, panpion atseginak...

Talde hau 1987an sortu zen Sevillan, eta beti pailazoen gaia hartuta, oso harrera ona izan dute kritika eta ikusleen aldetik, bereziki «Somos novios» antzezlan famatuarekin. Iaz, Sevillan burutu zen Mundu Erakusketan parte hartu zuten sei hilabeteetan, animazio ikuskizunekin, eta hori amaitzean ekoiztu zuten honako lan hau. Zuzendaria Juan Carlos Sanchez da, eta protagonistak Pepa Diez Meco, Friedhelm Grube, Pep Quer eta Mayte Sandoval eta Paco Tous.

Asteartean Zangozan izanen dira, asteazkenean Lizarran eta ostegunetan Atsasun.

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

### «ELKARREKIN LANEAN»

izeneko saioa eskeiniko du aste osoan zehar Xorroxin Irratiak, astelehenean ortziral bitarte, 10etatik 12etara. Egunkarietako berriei errepaso, merkatu tikia, sukaldariaren errezetak, kultura, kirola edota elkarrizketak, eta lehiaketak osatzen dute irrasaio jori bezain trinkoa.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Jordi Esteva**  
Arte kritikaria



**Ryszard Staniek**  
Futbolaria



**Pedro Ruiz de Alegria**  
Espainiako Gobernuaren Ordezkarria

Nafarroako Jaialdien barruan, «Sormena merkatuaren aroan» aste honetako ikastaroaren zuzendaria dugu Jordi Esteva. Kazetaria eta «Ajoblanco» aldizkariaren arte kritikaria, 1951. urtean jaio zen Bartzelonan. Estevak ekonomia ikasketak egin zituen, baina bere lana Ekialdeko kulturen arloa bideratu zituen, eta gero kazetaritza. Himalayako eta Sudaneko kulturei buruzko ikerketak egin zituen 70eko hamarkadan, ondoren Kairon irratigintza lanean aritu zen, eta aldi berean argazkilaritza. 1986. urtetik aurrera «Ajoblanco» aldizkarian argazkigintza zuzendari eta erredaktoreburu lanetan aritu da. Jordi Estevak «Kultur mestizaia» izeneko hitzaldia eman zuen. Bere ustez, «mestizaia kultura gutzientz sorburua da. Ezin historiaren kontra jokatu».

Staniek poloniarra Osasuna futbol taldearen jokalaria da dagoeneko. Orain arte Gornik taldekoa izan dena, Osasunak Sadarren Valenciaren kontra jokatuko duen adiskidantza zoko neurketan aurkeztuko dute zaletu gorritxoaren aurrean. Fermin Ezkurra lehendakariak erran zuenez, fitxaketa ia-ia eginda dago. «Guk, Gornik taldeak eta jokalariek guztia sinatu dugu eta orain falta den gauza bakarra, espainiar kontsulatuak tramiteekin amaitzea da». Beste bi jokalariek poloniar zegoen Osasunaren zerrendan, baina bat gazteegia zelako eta bestea garestiegia, horien fitxaketa alde batera utzi du taldeak. Ryszard Staniek poloniarren fitxaketarekin, beraz, Jan Urbanek badu laguna aurrekalderako.

Nafarroan Espainiako Gobernuak duen ordezkariak, dudarik gabe, gustukoa du toki orotan agertzea, eta aurretik zegoen ohizko plantarekin hautsi du. Ohituak geunden soilik une larrietan azaltzera, baina barakaldarrak noiznahi eta nonnahi azaltzen ditu bere iritziak eta usteak. Aste honetan bertan, Iruñeko basketxe batean izandako ez-tandaren ondorioz, atentatuei «behar baino» garrantzi handiagoa ez emateko deia luzatu zuen, eta atentatuak «burmuinik gabeko» pertsonen ekintza zela azaldu. Bere esanetan, ETaren ibilbidea itzulirik gabekoa da, eta euskal gizarteak beldurra galtzen hasia da. «Jendeak «aski» esan du eta horrek ez dauka bueltarik», azaldu zuen Ruiz de Alegriak.

### Lakuntza


# Kazkabarrak dena hondatu zuen

P.U. / IRUNEA

Soilik ondasun publikoetan izandako kalteengatik jasoko dira Sakanan dirulaguntzak, joan den larunbatean izan zen kazkabarrak jaso izugarriaren ondorioz. Asteartean izan ziren Diputazio teknikiariak kalteak aztertzen, eta etxe eta enpresa franko teiltuak eta gainekoak hondatuta gelditu baziren ere, Gobernuak ez omen du hondamen eremu izendatuko.

Ekaitza arratsaldeko bostak aldera hasi zen, eta inoiz ez bezalakoa izan zen. Eskutxien taimainako kazkabarrak gogor erori ziren Uhartetik Altsasuraino, baina kalte handienak lehen herrietik eta Lakuntzara bitarte izan ziren. Autoak matxuratuta, teiltu eta hodiak zulatuta, uzta zeharo hondatuta, ziztu bizian handitu ziren errekek eta ugaldak, eta ordubete inguruan paisaia tamalgarria zen.

Hori dela eta Arruazu, Lakuntza eta Uharteko alkateek hondamen eremu izendatzeko eskatu zioten Gobernuari, baina teknikariak, asteartean bertan egin zuten bisitaren ondorioz, horretarako aukera gutxi zegoela aitortu zuten.



Etxeetan izan ziren kalte handienak.

Hala ere, ondasun publikoetan eragindako kalteengatik dirulaguntzak izango dira. Hau da, bidak, eskolak eta enpresetako kalteengatik emango dituzte, baina ez etxeetan, soroetan edo lokal pribatuetan izandakoengatik, nahiz eta kalte handienak hor azaldu.

Kontuan hartu behar da bildu

gabe zegoen uzta guztia galdu egin dela aipatu herrietan eta franko direla ganbara eta teiltuetan kazkabarrak egindako okerrak, larunbatekoa bezalakoa ez baitzuen inork ere ezagutzen Sakana osoan.

Hala eta guztiz ere, alkateek ez dute etsi, eta hiruren artean ahalik eta dirulaguntza gehien lortzen

ahaleginduko direla azaldu zuten. Horretarako, hondatutako teiltuaren argazkiak atera eta konpontze lanen faktura guztiak gordetzeko gomendatu dute, noizbait dirulaguntzak etortzen badira. Bitartean, aste honetan dagoeneko egin dira auzolanak herriak txukuntzeko eta zenbait kalte konpontzeko.



**ZANGOZAK** badu txaranga berria: Media Villa 5 izenekoa. Bere aurkezpen ofiziala ekaina aldera izan bazen ere, orkestren balioa ikusteko entzun egin behar zaie, eta Donezteben eta Siguesen badute horren berri. Aste honetan bertan Ezkizozko festetan ziren jotzekoak. Hamaika gaztek osatuta, denak arituak dira dagoeneko beste musika taldetan —Musika Banda, Zangozako Konterbatokian, dantzariak—, eta 60 bat kanta dute dagoeneko bilduman. Halaber, idatzia dute zenbait eskutitz Nafarroako udaletxei festetan jotzeko. Animoa behintzat ez zaie falta.

**AMAIUR**ren ospatu zen joan den igandean bertako ardi-txakur txapelketa eta Felix Irigoien aurreko txapeldunak irabazi. Jende anitzten artean —600 bat antolaitzaileen arabera— Gaztelu Maldan 'Kubino' txakurraren erakustaldi aparta ikusi ahal izan zen, 236 punturekin proba guztiak nabarmen gaititu baitzuten. Egun berean gasna txapelketa ospatu zen, bakarrik Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko artzainendako, eta Elbeteko Aurtitxia baserriko Ramon Agirrek irabazki zuen.

## FESTAZ FESTA

### BALTERRA

#### Abuztuak 20, ostirala:

- 09.00 Diana.
- 12.00 Entzierroa eta bigantxak.
- 14.00 Txarangarekin kalejira.
- 14.30 Bazkari herrikoa.
- 16.30 Aires de Corella txarangarekin kalejira.
- 17.30 Itxurazko entzierroa.
- 18.00 Entzierroa. Jarraian Txaranga.
- 21.15 Txontxongiloak.
- 00.30 Tarantella orkestrarekin dantzaldia.

#### Abuztuak 21, larunbata:

- 09.00 Dianak.
- 10.30 Jubilatuen konzentrazioa haien klubean.
- 11.00 Meza.
- 12.00 Bigantxak igerilekuan.
- 13.30 Jubilatuekako bazkaria.
- 17.30 Entzierroa.
- 18.00 Bigantxak errepidean.
- 21.00 Entzierroa.
- 21.15 Txontxongiloak.
- 00.30 Supertro's orkestrarekin dantzaldia.

#### Abuztuak 22, igandea:

- 07.00 Dianak.
- 08.00 Entzierroa eta gazteendako bigantxak.
- 12.30 Bigantxak plazan.



- 17.30 Entzierroa.
- 18.00 Bigantxak errepidean.
- 21.00 Entzierroa.
- 21.15 Txontxongiloak.
- 24.00 Ethel y Malvarrosa orkestrarekin dantzaldia.

### MURTXANTE

#### Abuztuak 20, ostirala:

- 09.00 Dianak.
- 11.30 Bigantxak errepidean.

- 17.30 Entzierroak.
- 18.30 'Recortadores-ekin' txapelketa.
- 21.30 Zezen suzkoa.
- 23.30 Samuray orkestrarekin dantzaldia.
- 03.00 Entzierroak.

#### Abuztuak 21, larunbata:

- 09.00 Dianak.
- 11.30 Entzierroak eta bigantxak errepidean.

- 17.30 Entzierroak.
- 18.30 Zezen jaialdia.
- 21.30 Azken zezen suzkoa.
- 24.00 'Pobre de mi'.
- 01.00 Samuray orkestrarekin dantzaldia.

### KABANILLAS

#### Abuztuak 20, ostirala:

- 10.00 Dianak.
- 11.30 Entzierroak eta bigantxak.
- 16.00 Acuarium orkestraren kontzertua.
- 18.00 Entzierroak eta bigantxak. Ondoren itxurazko entzierroa.
- 21.00 Acuarium orkestrarekin dantzaldia.
- 23.00 Txaranga.
- 00.45 Acuarium orkestrarekin dantzaldia.

#### Abuztuak 21, larunbata:

- 09.00 Usadiozko bigantxen sarra.
- 10.00 Hamaiketako.
- 13.30 Emakumeen bazkaria.
- 16.00 Olimpia orkestrarekin kontzertua.
- 18.00 Entzierroak eta bigantxak.
- 21.00 Olimpia orkestrarekin dantzaldia.
- 23.30 'Pobre de mi'. Ondoren Olimpia orkestrarekin dantzaldia.



**AGOIZ**ko elizan dagoen Santa Agedaren irudia bere tokitik kendu eta eskuak hautsi egin zizkionten joan den igande goizaldean ezezagun batzuek. Mezara joaterakoan ohartu ziren zenbait bizilagun kalteaz, ohizko tokiaren azpitik kristal hautsiak eta harri puskak baitzeuden. Eskuak plazan bertan aurkitu zituzten. Iru dia bera aurkitzeko gehiago itxaron behar izan zuten, hasierako miaketek ez baitzuten emaitzarik eman. Ondoren Argamasillako Jauregian topatu zuten, hara bota baitzuten kaltearen eragileek. Iru dia luze gabe berrituko da.

**ARAKIL** ibaian joan den astean antzemandako arrainen hilketa-aren arrazoia isurpen kutsagarriak izan litezke, Nafarroako Gobernuaren Ehiza eta Arrain Zerbitzukoek azaldu berri dutenez. Joan den ostiralean aurkitu ziren ibaian arrain franko, bereziki barboak eta loinak, nahiko kopuru handietan. Aipatu zerbitzuko langileak aztertzen ari dira ez behar honen arrazoiak, eta ibaiak garai honetan daraman jario eskasa eta bero handia ere aipatu zuten.

Iruñeko espetxeari buruzko ika-mika franko izan dira azkenotan, bereziki insumiso nafar gazteen auziaren ondoren. Hala ere, bada presondegi zahar honetan aspaldidanik datozen arazoak eta isilean egiten diren lanak, preso orori dagozkionak. Horietako bat da Gizarte Laguntzarako Batzordearena. Pertsona bat preso sartzetik askatasuna ematen zaion arte bertako gizarte laguntzaileak arduratzen dira behar den laguntza guztia ematen, eta beraiek ezagutzen dute inork baino hobeto barruko arazo eta gorabeherak. Iaz askatutakoan artean antzeman denez, drogazaleena da, alde handiz, arazorik larriena, eta kritikoa agertzen dira espetxeekin orokorrean, eta bereziki honekin. Beraien ustetan, espetxeak presoari laguntzeko baliagarria behar du izan, baina Iruñekoak ez dauka horretarako ezta gutxieneko azpiegiturak ere.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Espetxeen inguruko eztabaida espetxeak bezain zaharra da. Urteek eta esperientziak garbi erakutsi dute pareta gaindiezin horien barruan jendea biltzeak ez duela gaitza sendatzen, eta larriago egiten duen ustea ere bada. Barruan bizi den sasikulturak ez du gizartekotzeko betarik ematen, eta egun, segurtasun irizpideak eta iritzi publikoak besterik ez dute justifikatzen toki orotan gorrotagarri bihurtu diren eraikinok. Non gelditu da, bada, ustez beren benetako helburua, alegia, gaizkileak gizartekotzea?

«Nere ustez, edonor da gizartekotzeko gai, baina horretarako espetxea ez da beti tokirik onena». Amador Ruiz de Sanz Nafarroako Gizarte Laguntzarako Batzordearen koordinatzailea da duela zazpi urtetik hona, eta berak ezagutzen du inork baino hobeto Nafarroako gaizkileen arazoak eta presondegiaren balioa bera. Erakunde hau 1983an sortu zen, bi helburu nagusirekin: espetxe barruko gizarte lana, eta espetxetik atera ondokoa. Egund bereziki bigarrean ari da lanean, nahiz eta barruko arduratzen den taldearekin harreman estua izan, eta beraiek dira, finean, espetxean sartzen diren pertsonen gizarte normaltasun osoz bizitzeko bideak bilatu behar dizkietenak.

Beren lana espetxean bertan hasten da, orduan egiten baitaio presoari azterketa eta galdetegi bat, bere egoera —soziala, ekonomikoa, mentala— ongi ezagutzeko. Hortik, praktikan, salto egiten da behin-behineko askatasuna lortu arte, barruko lana, xumea izanda ere, presondegiko gizarte langileen eskuetan baita. Hala ere, gizarte lana baino zenbait ekintza egiten dira bertan, espetxeak ez baitu askotarako ematen. Zahar askoa, taillerak eta hainbat ekintza egiteko toki egokirik ez dago, eta gizarteratzeko egitasmoak burutzeko arazo franko daude bertan. «Barruan ezin da drogazaleendako tratamendu egokirik prestatu edo buru-osasunekin arazoak dituztenei behar duten arreta eskaini, ez baita azpiegiturarik, eta ezin delako eraiki». Hori dela eta, benetako lana behin-behineko askatasuna lortzean hasten da.

Askatasun hori eskuratzeko zigorraren hiru laurdenak bete behar dira, eta barruan jarrera ona eduki behar du presoak. Barruko taldeak azterketa antzekoa egin behar du bere egoerari buruz —kanpoan laguntza izango ote duen, ongi ibiliko ote den, lan egiteko eta bizitzeko aukerak...—, eta oniritzia ematen bazaio, batzordea arduratzen da bere segimenduz. Sanzen ustetan, diagnostikoak edozein momen-

## «Laguntza, ez zigorra»



tuan egin dezake huts. «Arazo askotako jendea da, sistemak goitik behera beraiekin huts egindakoak, eta gazte-gaztetik dakartzaten arazoekin». Izan ere, prebentzio arloan ezer gutxi egin dela eta, kexu dira gizarte langileak. «Toki askotan ez da aurretik inolako lanik egin, eta bereziki drogamenpekotasunarekin hutsa galanta izan da. Orain arte egin diren egitasmo guztiek laguntzari erreparatu diote, ez prebentzioari ez gizartekotzeari». Hain zuzen ere, drogazaleak dira arazo larriena. Iaz behin-behineko askatasunarekin Iruñeko preson-



Espetxe barruko giroak.

**A** haztu egiten da batzuetan zigorraren helburua ez dela zigortzea, gaizkilea gizarteratzea baizik».

guntza bideratzeaz gain, preso ohienak etxeak lortzen saiatzen dira, eta baita lana ere, INE-Mekin duten hitzarmenari esker urtero 15 bat lanpostu dituztelako eskura.

Iaz askatutakoan artean berriro espetxera sartu zirenen kopurua % 11,5koa izan zen soilik, «oso ona», Sanzen esanetan, baina ohizkoak askoz ere handiagoak direla aitortu du. «Kopuruak handiagoak dira, baina ez jendeak uste duen adinakoak. Ahaztu egiten baita batzuetan zigorraren helburua ez dela zigortzea, gizartekotzea baizik». Legehausteen ibilbidea «ziklikoa» dela azaldu du koordinatzaileak, hau da, jende askok errepikatu egiten du, baina beraien lanari esker azkenean gehienek benetako integrazioa lortzen dutela azpimarratu du. «Badago urteetan legea hautsi egiten dutenak, espetxean dagoeneko oso eza-gunak, baina gehienek, azkenean, utzi egiten dute. Eutsi eta eutsi egiten dutenen kopurua askoz txikiagoa da». Bere ustetan, askotan arrakastarik ez izateak ez dakar lanaren porrota, inondik inora, «kopuruak askoz ere txikiagoak baitira gure lanaren ondorioz. Gure helburua, hain zuzen ere, lehen delitua egiten denetik azkenerainoko epe hori ahalik eta motzena egitea da».

Behin kalean, aske, preso orok dirulaguntza dauka 18 hilabetez, eta lana edo pisua lortzen saiatzen dira Gizarte Laguntzarako Batzordekoak. Horretarako biderrik onena familiakoengana jotzea dela diote, baina askotan ere horiek zapuzten dute preso ohia. «Lotura franko hautsiak dira ordurako, eta soilik amarenengan gelditu ohi da azken garra. Hala ere, funtsezkoa da laguntza hau, pertsonak berriro legea hautsi ez dezan». Batzordeak, dirula-

Horretarako, duda-muda dezentzate daukate gizarte langileek espetxearen baliagarritasunaz, gizartekotzeko tokirik proposena ez delakoan. «Nekez eman dakioke tratamendu piskiatriko egokia bortxatzaile bati espetxean, eta berdin drogazale bati. Horiek beste tokietan egon behar dute, ez espetxean».


Espetxeari zenbait irtenbide aztertzen hasiak dira, eta EEB-Betan eta Europan martxan dagoen 'behin-behineko zigorra' nabarmendu du Sanzek. «Horren bidez, kartzela zigorra txiki eta berezi batzuk dituen jendea ez da espetxera sartzen, eta baldintza batzuk jartzen zaizkio bere jarrera zer-nolakoa den ikusteko. Hau da, jendea lagundu egiten zaio, ez espetxean sartu».

Nolanahi ere, ez dute ukatu espetxearen beharra, beste talde askok egiten duten ez bezala, eta Nafarroan zentro berria zeharo beharrezkotzat jo dute. Ez ordea, aipatu ziren espetxe erraldoiak, «hemen ez baitago horren beharrik».

Kartzelaren ondorengoak

mintzoak

## BEHIN-BEHINEKO ASKATASUNA LORTU DUTEN PRESOEN PERFILA



## Aske atera zirenen ezaugarriak

A.B. / IRUÑEA

Urtero argitaratzen ditu Gizarte Laguntzarako Batzordeak behin-behineko askatasunaren segimenduari buruzko datuak, eta esanguratsu askoak dira beti, bertan antzeman baitaiteke talde honen lana, eta presoek kolektiboaren aldaketa eta gora-behera nagusiak. Goiko koadroan ikus daitezke, hain zuzen ere, 1992an Iruñeko presondegitik behin-behineko askatasunean atera ziren presoengatik datuak. Guztira 138 izan ziren, eta horietariko 16 (% 11,6) berriro itzuli ziren kartzelara. Hauen artean 15ek drogekin zerikusia zuten, eta 14 legehausteak egiteagatik atxilotu zituzten.


Iaz jasotako datu azpimarragarrien artean, nabarmentzekoa da gizonezko eta emakumezkoen arteko alde ikaragarria: 131 gizonezko eta 7 emakumezko. Adinari dagokionez ere bada datu esanguratsurik. Hogei urtetik beherakorik ez dago espetxetik atera zirenen artean, eta kopururik nagusia (% 76) 20 eta 40 urte bitartekoaren artean dago —bereziki 25-35 urtekoak—,

'belaunaldi madarikatua', izen-datu dena. Jaiolekuari dagokionez ere badaude tarte esanguratsuak, preso ohien % 72,9 Iruñerrian bizi baita. Mendialdean —bereziki Altsasu eta Etxarri-Aranatzen— % 9,6 jasotzen da, eta beste inguruetan nahiko banandurik dago. Aipagarria da Zangozaldea —Zaraitzu, Erronkari...— ez duela preso bakar bat ere.

Ikasketei dagokionez, gehien-

go nagusiak (% 70) lehen mailako ikasketak dauzka, eta ez da 138 horien artean unibertsitate mailako ikasketak bukatuta dituenik. Aldiz, lanari dagokionez, nahiko parekatua dago egoera lana daukatenen eta langabezia daukatenen artean.

Datu interesgarrienetakoak, akaso, delituar buruzkoak dira. Erdiak baino gehiago (% 59,4) ondasunaren kontrako delituak dira, hau da, lapurreta, iruzurrak



Iruñeko presondegia.

## Herriko bestak

● Agustinarenean afaltzetik heldu ginen. Lankratx, Zurrut, Xuper eta laurok. Herriko bestak. Pixa egin genuen alurtatik. Gustora, lamien osinean sortzen den errekarra. Multa paratu izanen ziguten ikusi izatera. Arrazoi osoz pagaraziko gainera, udaro ahoz goiti pozoituak agertzen diren amurruaren heriotzaren kulpanteak baldin baginen!

Suerte izan genuen ordea, albintea bertsoa osatu nahian ari baitzen Patagonia deskubritzera joan gogo duen taldeak paratu zuten barrakako musika (?) haren aurka. Gu ere bertara, eta egutegiko neska-aren keinuari erreparatu eta guregatik ('neregatik' uste denok) ari zela sinetsirik k.o. geunden momentuan, kontzejala agertu zen oihuka, musika tzar hura kentzeko aginduz. Patxarana ez da 'valium' baina 'balio' izan zuen: gizonak barraren kontra, ihespiderik ez, aditu behar izan zituen motibo beretsuengatik urte osoan Herriko Etxeari kejaka aritu direnek banaka banaka eskaini zioten erosarioa.

Barrakatik barrakara joan ginen, baina egutegiko neska ez zuen hain ongi depilaturiko bibotean gelditu ile bakarrak ere mugitu pareta hartatik jautsi eta gure ondotik etortzeko. Beharrik ohituak gauden horrelako frakasoetara! Gurea, gainera, zeppelina zen eta ziraldoka baina bixi xamar mugitzen ginen hodei artean. Alegia, nahita ere ez gintuela harrapatuko. Jota 'nafarrak' kantatzen hasi eta bakarrik gelditu ginen.

Tren txu-txu gelditua zegoen aspaldi, baita txokeko kotxeak ere. Baina fusilak edozein armazalaren eskura

uzten zituen portugesak zin egina zion atsoari gu bezalako trapu batzuei duroka kenduko zigula oilarra kantari hasi baino lehen. Baietz, berak harako hartan (eta behatzarekin tripa zahagia jotzen zuen) hura sumatzen zuenean halaxe izaten zela beti.

Bete-beteen asmatu zuen gizonak, eta sakelak zulaturik baina muñeka baina kolkoan adio erran genion, eguneko hondarreko 'tiroak' bota ote genituen sentsazioarekin. Orduan ikusi genuen mahaitxo bildu eta erretira egiteko prest zegoen gizon iluna. Sinadurak biltzen ari omen zen, delito sexualak egiten zituztenek zigor handiagoa izan zezaten eskatzeko.

Gure izenak paratu genituen, karnetaren zenbakia osatzeko izugarrizko eginahala egin behar izan bagenuen ere. Lankratxek ezetz ordea (beti gu baino argixeago ibiltzen hori). Gartzelaren zertarakoaz eta gurasoen sentimenduez hasi ziren eztabaidan, eta guk mutu geure buruari kontzearekin nahiko lan. Piloto gorria biztu eta etxeraino justu-justuan ailegatzeko gauza izanen ginela ohartu ginenean alde egin genuen, geure laguna han bai-ta-ezka utzirik.

\*19sedenik ez neretzat gau hartan: buelta eta buelta, ongi ordainduriko afaria kanpora hobe zela erabaki arte. Eta gero izerdi aunitz.



Mikel Taberna 'Kapi' Itzultzailea


eta abar. Beste kopuru garrantzitsuagoa (% 21,7) droga trafikoarekin zerikusia dutenena da, eta datu hauek are ulergarriagoak dira aske ateratakoen artean % 47,3 drogazaleak izan direla

edo oraindik ere badirela kontuan hartzen baldin bada.

Kopuru honekin bakarrik, esan behar da gizonezkoen nagusitasuna hemen ere nabaria dela (% 94,4), eta gehiengo (% 81,5) ondasunaren kontrako delituak egiteagatik zigortua dago. Heroina, kokaina eta haxixa dira nagusi drogen artean, eta % 68k soilik egin dute tratamendua arazoa konpontzeko, bereziki Buru Osasunerako zentroetan eta drogazaleendako zentroetan.

Ikusten ahal denez, nahiko ezaugarri beretsuak dituen taldea, joera pozgarri zenbaitekin: gero eta gazte delinkuentzia gutxiago dago, eta tratamendua jaso duten drogazaleen kopurua gero eta handiagoa da. Datu hauek nabarmen aldatuko dira aurtengo eta hurrengo urteetako datuekin alderatuz gero, bereziki intsumisioen kopuruak orduan kontuan hartuko direlako.

## Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako xake txapelketaren 5. ihardunaldiko partida. 1992ko azaroaren 14ean jokatu.

J.M. Muruzabal (Casco Antiguo) Jesus De la Villaren (Oberena 'A') aurka.

1. Zf3, d5; 2. b3, Ag4; 3. Ab2, Zd7; 4. d4, Af3; 5. g-f3, e6; 6. e3, c6; 7. Zd2, Zh6; 8. Ad3, Df6; 9. De2, Zc5; 10. 0-0-0, Zd3 xa; 11. Dd3, 0-0-0; 12. Eb1, Zf5; 13. De2, Zh4; 14. a3, Ad6; 15. f4, h6; 16. c4, g5; 17. g5, g5; 18. c5, Ac7; 19. b4, Df5 xa; 20. Ea2, a6; 21. e4.

Jokaldi taktikoa egin nahi du: Bi urratsetan endroka birrindu, alegia. Edo bestela, alfila itxi. Ikus koadroa. 21....e4; 22. d5, e-d5.

Beltzek egoera hobeto aztertu zuten. Gaztelua galdu bai, baina puntutan berdindurik geratuko dira, eta min gehiago egiteko aukera eskuratu dute.

23. Ah8, Gh8; 24. h3, De6; 25. a4, Zg6; 26. Zb3, Zf4; 27. Dg4.

Gazteluko peoia izugarri ahul zegoen. Ez dago posizioa konpontzerik. Beltzek zaldia 'd3' laukian sartuko dute, erabateko nagusitasuna azalduz.

27....f5; 28. Dg5, Zd3; 29. Gd3, d3.

Pieza eman eta gero, oreka ez da inondik inora agertzen. Sekulako posizioa da beltzentzat.

30. Zd4, De4; 31. Df5 xa, Df5; 32. Zf5, Gf8; 33. Zd6 xa, Ad6; 34. d6, Gf2 xa; 35. Eb3, d2; 36. h4, Gh2; 37. Gd1, Ed7; 38. h5, Ed6; 39. h6, b6.

Txuriek amore eman zuten, beltzek ikuspegi zorrotzagoa erakutsi ondoren.

## Irribarre hura

FERNANDO IRAZOKI

1939ko abenduan zerua argi zegoen, halere bazirudien goiz horretan luraren eraso prestatzen ari zirela. Bi uso gazte lehio inguruan zebiltzan biraka, janari eta aterpe bila. Baina aitona une horretantxe ez zegoen usoen-tzako. Bi sagu, kale bazterrean, gazta puska zoragarri batengatik ari ziren borrokan. Gazta puskak pakean uzteko erregutzen zien, baina saguek, setatsu jarraitzen zuten berean, gazta puska apurtzeko arriskuarekin. Ez zirudien gazta inork eskuratuko zuenik. Sagu txikiak maltzurkeria haundiz jokatzu lortu zuen gazta puska, bere etsaia punturik ahulenean erasotuz. Horrela ba, gure sagutxoak, zapela kentzeko moduko garaipena jaso zuen etsai bildurgarri baten aurka.

Lehen esan bezala, aitona ez zegoen ez uso eta ez saguentzako, baizik eta bere ametsetarako: bere sorterrira garai ilunaren onodorioz nola geratu zen ikustea. Trena hutsik zihoan gizonaren onerako. Lehen ikusi zuen eserlekuan eseri zen, baina zera hori faltan zuen, ez zekien ezer. Halere bazekien zerbait falta zuela erabat gustora egon zedin. Grangiko herriaren parean, trenak geldidune txiki bat egin zuen. Bertako paisaia iluna zen. Ez zegoen zuhaitzik eta zeuden bakarrak, garai beltzaren erruz erabat zimeldurik zeuden; jenderik ez zen ageri, herri inguruetan behintzat, bizitza bakarra zeruan hegaka zebiltzan bederatzita putre ziren.

Aitona trenera igotzera zihoanean, etxe zahar baten inguruan irribarre maltzur batek harritu zuen, begiak hara zuzendu eta orduantxe ohartu zuen: berriz ere gure sagutxoak, bereak eta bi egiten ari zen, izugarritzako gazta puxka janaz. Bidaiak aurrera jarraitzen zuten. Aitona pentsakor zegoen, ezin zuen gure sagutxoak burutik kendu. Beti azaltzen zen mo-

menturik arraroenean, haren presentzia, haren irribarre... urduri jartzen zen aitona. Ia-ia lo zegoelarik, gure sagutxoak hurbil aurkitzen zen. Leku guztiak arakatu zituen: aulki azpian, gelak... tren guztia azken finean, baina ez zuen gure sagutxoak inondik ere aurkitzen. Etsiturik eskuak patriketan sartu zituen eta hara non ikusten duen gure sagutxoak ezkutaturik, irribarre haundi bat agertuz.

—Zer moduz aitona?— esan zion saguak.

Aitona ikaturik zegoen. Ez saguaren ateraldiagatik, baizik eta irribarre harengatik. Kezkatu egiten zuen, ezin bait zuen jasan horrelako gauzik. Txikia geratzen zen gure sagutxoaren ondoan, galduta sentitzen zen. Bapatean logura izugarria sentitu, eta loak hartu zuen gure sagutxoak, aitona hanka tartean. Gure sagutxoak esnatu zenean, aitona aurpegia kezkaturik ikusi zuen, hain zuzen bere sorterrira iristen hasi ziren heinean hango egoera txarrak ohartzaren hasia zen. Giroa ez zen hirikoa bezain lasaia eta airean kezka garantzitsu bat sumatzen zen. Herriatik hogeita kilometrotara aurkitzen zirenean trenetik jaitsi ziren. Trenbidea mozturik zegoen, hortik aurrera oinez jarraitu beharko zuten.

Jende urri ageri zen herrian. Etxe guztiak erorita zeuden, baina bazegoen zutik zegoen bat: eritetxe. Aitonak eta gure sagutxoak gaua han pasatzea erabaki zuten. Bestalde, ez zeukaten beste aukerarik. Eritetxe barruan erizain dotore batek jaso zituen. Gerra ga-

raia oso latza gertatzen ari zela esan zien eta horrela jarraituz gero, herria utzi beharko zutela ere aipatu zien, momentu horretan hogeita pertsona bakarrik bizi bait ziren herrian, zaurituak eta guzti. Afaltzeko garaian, normala denez, ez zuten janari mota ezberdinak dastatzeko aukerarik izan; babak, edo ezer ere ez. Afaria bukatu zutenean gure sagutxoak aitonari etxera itzuli nahi zuela adierazi zion, keinu batzuen bidez; aitonari hasieran ez zitzaion ongi iruditu, baina azkenean onetsi zuen, berari ere etxeko berotasunera itultzeko beharra agertu bait zitzaion.

Neke eta lan askoren ondoren gure lagunak tren geltokira iritsi ziren. Oraingoan, gure sagutxoak eta aitona ez zeuden bakarrik. Gizontxo arraro batekin banatzen zuten trena. Txikia eta ile horia zuen, ez zeukan itxura txarrak, alderantziz, bazirudien mundu guztia salbatzeko gai zela. Gelara sartu bezain pronto, gure saguak aitonari poltsan gordetzen zuen gazta puska kendu zion. Gertaera honek aitona asko berotu zuen:

—Zerbait nahi baduzu eskatu besterik ez duzu egin behar— esan zion aitonak.

Gure saguak, erantzun gisa, irribarre maltzur horietako bat botatzen zion, eta azkenerako aitonak eskatu behar izan zion barkamena, nahiz eta arrazoia berak eduki. Grangiko herria igaro zutenean aldaketa nabarmen bat sumatu zuten: lehen lurralde hila bazen, orain bazirudien infernua. Zerua leku hura ere desegin egin zuen.

Bidaia bere azkenera iristen ari zen, denbora gutxi barru gure sagutxoak eta aitona etxean egongo zirene...

—Ez dago gazta puska baino gauza ederragorik— esan zuen saguak

—Arroaioa duzu— erantzun zion aitonak.


Azkenik ere, etxeko berotasunean aurkitzen ziren betirako, gure saga eta gure aitonak.



## KAZKARROAN

## HITZ GURUTZATUAK

1 2 3 4 5 6 7 8 9



N-89

EZKER-ESKUI: 1.- Jaleak. 2.- Galiaren sinbolo kimikoa. Sala nagusia. 3.- Sailak. Kontsonante bikoitza. 4.- Etxearen behe alde. Interjekzioa. 5.- Musika nota. Errepublikatuz, txori bat. 6.- Asiako estatua. Erretegi. 7.- Bat eta bat. Erromatarren aurretik Espainian eta Galian bizi izan zen herria. 8.- Trebeak. Bi kontsonante. 9.- Kantari

GOITIK-BEHERA: 1.- Etengabeen hedatzeko tasuna duen gorputz edo gaia. Bide. 2.- Sorterriak. 3.- Lehenengo. Sarrera. Kasik. 4.- Arto irinez egindako opila. Nuen, hari. 5.- Oinarritzako edaria. Zebaki bat. 6.- Aki. Toki. 7.- Kanpo. Gaueko argi. Potasioaren sinbolo kimikoa. 8.- Gizon izena. 9.- Gabarra. Alderdi bat.



## Olatz Txipi

**R**io Egues izenak min handia egiten baldin bazien uhartearren belarriak gaurko izenak amorrarazten ditu bai uhartearrak eta bai inguruko guztiak ere. Lerro hauek idaztean ari naizen honetan Miguel Indurainek kasik erabakita utzi du aurtengo tourra Tourmaletetik behera hegaz ibili ondoren. Tourra bukatu ondoren, eta ohore ofizialak Uhartuta, Atarrabiara bidean abiatuko da ohizko bilakatzen den harrera, nahitaez, pairatzeko. Kuenkoen ohorea Iruñeko karraketan barrena zabalduko du Iruñeko hiritarren aurrean.

Eginkizun guztiak bukatzen direnean ez da Atarrabiako gurasoen etxera joanen, ezkondu denetik Atarrabiarekin muga egiten duen Olatz herrian bizi delako. Erdarazko egunkari eta irratietan ez da problemarik izanen. Euskarazkoetan, berriz, bai.

Hara non ikusiko dugun Miguel Indurain Olatz Txipira bildu dela merezitako atsedena hartzeko. Prentsak gogoratuko digu Miguelek Olatz Txipin erosi zuela etxea... Gehienak pentsatuko dute Olatz erdaraz dela eta Olatz Txipi, berriz, euskaraz. Tamalez ez da hori azalpen zuzena.

Euskaltzaindiak Nafarroako Euskal Izendegia liburua argitaratu zuen Nafarroako herrien euskal izenen grafiak normalizatzea. Akademiak lan izugarria egin zuen hain beharrezkoa zen lana aurrera eramateko, baina hutez ez zen libre geratu. Zoritxarrez grabeeana, agian, Olatze-kin egindakoa da.

Aipatu liburuan nahastu da Eguesibarreko Olatz herria eta Uharteko Olatz Txipi (Olatztxipi ahoskatua) etxe zaharra, gaur egun Lanbide Heziketarako Institutua dena eta erreformatorio ospetsua izana. Esan bezala bi gauza dira eta, etimologia alde batera utzita, inolako loturarik ez dute. Olatz herria da, Olatz Txipi Olatzko mugan dagoen baserria (baina Uhartan), eta horregatik Olatz Txipi deitua.

Baina huts honetatik abiatuta Galar Zendeako Olatz herriari, Olatz Txipiri kontrajartzeko, Olatz Nagusia esan behar zitzaioala erabaki zen. Kontuz ibili beraz. Miguel Indurain Eguesibarreko Olatzen bizi da, ez Olatz Txipin. Gogoratu gainera Olatz Nagusia berriki eta huts batetik sortutako izena dela. Bi Olatz hauek ez nahasteko, eta hirugarren bat jokuan sartu gabe, ibarren izena erantsi beharko genieke aurretik: Eguesibar-Olatz eta Galar-Olatz.

MIKEL BELASKO

## Jenero Xumekoak

## Leitzatik bihotzez

**M**ozarti Requiem-a enkargatu zion gizon misterio-tua niri Sarri zait. Bere hiletan joko zuten Requiem zela konturatu zen Mozart, hitz hauek lurperatuko nautenak direla ni konturatu naizen bezala. Jakina, nor bere neurrian. Mozart, Alemanian, ni, Leitza.

JEREMIAS ERRO

## Bizi Bizian

**I**bardingo bentak paisaiaren beste elementu bat dira beratarrentzat, baita inguruko beste herritarrentzat ere. Jatorriz, XIX. mendean dute sorburua eta geroztik, herriak guztiz bere egin ditu. Gazte

gehien lan toki bihurtu dira eta baita hainbat familiararen sostengu ere. Hala ere, mundu honetako gauza gehienak bezala, une gozo eta saminen sortzaileak ere badira.

# Ibardin: atzo, gaur... eta beti?

EDURNE ELIZONDO / IBARDIN

Berara ailegatuta, Pio Baroja bizi izan zeneko Itzea etxea eskuinean utzita, Ibardinera darman bidea hasten da, aldapan gorra sei bat kilometro. Benta Gorria da lehenengoa, bakarrik bide erzean. Ondoren, gainontzeko 24ak. Ibardingo bentak dira. Ipar eta Hego Euskal Herriak bat egiten duten toki berean sustraiturik, joan den mende hasieratik, alde bateko eta besteko jendearen arteko elkargune izan dira. «Nere amatxi ailegatu zen honat lehenengoz; lur puska bat berea zen eta hortxe zegoen ni jaio nintzen etxea. Amatziren ondoren amak hartu zuen etxea eta berak uztean, nik». Horrelaxe kontatu digu Pedro Gorriak Ibardingo lehen benta izan zen Benta Gorriaren hasiera. Bere amonak eraiki zuen etxea 1808. urtean eta geroztik, familiako kideek aurrera eraman dute negozioa.

Mugan bertan dauden bentak, joan den mende erdialdeko kontuak dira. Garai hartan, Nafarroarekiko muga bideak ezarri ziren. Hasieran bide hauetan bordak egoten ziren eta bertara, inguruko baserri eta herrietako jendea hurbiltzen zen, kartetan jokatzera edo baso bat ardo edatera. Lehen urteetako bentak herrikoiak ziren. Iparraldeko baserritarrak bertara joaten ziren ogia, ardoa eta abar erostera. Inato Irazoki Benta Berriren jabeak azaldu duenez, «hasierako bezeroak mugaz beste aldeko lagunak ziren, hizkuntza, izaera eta ohitura berdinak zituztenak. Komertzioa logikoa zen. Alde batetik, Iparraldean eta Frantziaren eskari handia zegoen eta Ibardinen prezio apaleko eta kalitate handiko produktuak eskaintzen zituzten».

Ibardingo bentak handituz eta beraien produktuak zabalduz joan ziren. Munduko Bigarren Gerra bukatzean Frantziaren gogose handia zegoen, baita Iparralden ere eta hori zela eta, Ibardinera jende asko hurbildu zen eskari zabal eta prezio merkeagoen bila.

**60KO HAMARKADAN HAZKUNDEA** Ondoren, 60ko hamarkadan turismoarekin batera ere, hazkunde handia bizi izan zuten Berako bentek. Benta Gorriaren ondotik, Benta Atalaia eta Benta Izarra eraiki ziren. «60ko hamarkadan, Frantziara eta Iparraldera jende asko joaten zen oporrak pasatzera eta horrek on handia egin zion Ibardini», Inato Irazokik erran duenez. Turismoaren garapena-



Egun 25 benta daude Ibardinen.

GOIKO

rekin batera, benta gehiago eraiki ziren, eta 70eko hamarkadan hazkunderik handiena lortu zuten. Gaur egun 25 benta dira Ibardinen. Garai bateko produktuen herri jatorria alde batera utzi gabe, benta bakoitza gai batean espezializatzen da garai honetan, batzuek harturria lantzen dute, beste batzuek larrua; bakoitzak berea.

Hazkundearen ondoren urte txarrak ere ailegatu izan dira;

1989-90. urteetan Ibardinek beherantz egin zuen Inato Irazokik azaldu duenez, «mugaren bi aldeetako prezioek berdintzeko joera hartu baitzuten». Hori zela eta, mugak ezabatzekeo ideia ez zuten ongi hartu Ibardingo benten jabeek. Baina alderantziz, azken urteotan gorakada bizi izan dute bentek, mugen deuseztapenarekin batera pezetaren debaluazioa izan delako. Horrek prezioak ez igotzeko eta batzuetan

jaisteko aukera ematen die benten jabeek, diru berdina edo gehiago irabaziz. Hala ere, Irazokiren ustetan, «egoera hau behin-behinekoa da eta edozein momentuan alda daiteke».

Egoera berria dela eta, Ibardingo benten etorkizuna ez dago batere argi eta gaurkoan jarraitzea da jabe guztien helburua.

## Oporrik gabeko uda

E.E. / IBARDIN

**I**bardingo benten jabeak etorkizunaz kezkatzen badira, eguneroko arduratzen dira bertan lan egiten duten gazteak. Betidanik, Berako eta inguruko herrietako gazte gehienek Ibardinen aurkitu dute lehen lana, baina ordaina ez da beti merkea. Bost urte Ibardinen lanean daraman langile batek azaldu duenez, lana «oso gogorra» da. «Nahiz eta kontratua 8 ordukoa izan, bi jai egunekin, 11 ordu eta batzuetan gehiago ematen ditugu lanean. Gainera, jai egun bakarra dugu. Beste lekuetan arratsalde bakarra dute libre eta gainontzeko gehienetan, ezta hori ere». Gazte askok ikasketak ordaindu ahal izateko egiten du lan, nahiz eta horrela opo-

rrik ez izan. Gainera, badira neguan zehar asteburuetan lan egiten dutenak, «eta zaila da bi gauzak batera egitea».

Langile honen ustez, «dirua aurrezteko gero eta jende gutxiago kontratatzen dute jabeek eta honela, guk lan gehiago egin behar dugu diru berdinarekin truke. Soldata ere, batez ere hasieran, nahiko murrizta da, lan egiten ditugun orduak kontuan hartuz». Hala ere, berak aitortu duenez, alde batetik lanaren gogortasuna eta esker txarra daude, baina bestetik soldata, «eta zaila da soldata ez hartzea». Beraz, gaur egungo lan egoera txarra aintzat hartuz, Ibañeta da Berako gazteek duten aukera bakarra eta horra jotzen dute, nahiz eta beraien baldintzak egokienak ez direla jakin.

**E**goera berria dela eta, Ibardingo benten etorkizuna ez dago batere argi eta gaurkoan jarraitzea da jabe guztien helburua.

Gehienek inbertsio handiak egin dituzte aurrera atera ahal izateko eta beraien ogibideari nola edo hala eusteko prest daude. Honela, gaurko joera ikusirik, hau da, jendea Ibardinera erostera baino eguna pasatzera joaten dela, lan egiteko modu berrien bila ari dira. Ostatuak zabaltzen dituzte, jatetxeak, horietan baitago etorkizuna.

«Ibardingo gauzarik funtsezkoena, Ibañeta bera da, lekua, ez dago Nafarroa osoan bera bezalakorik», dio Pedro Gorriak. Ibardinek eskaintzen dituen leku ederak, paisaiak, hori da jendeak bilatzen duena, bere ustez. Horregatik, «Ibardinek bizirik iraungo» duela uste du Gorriak. «Ez da lehen bezainbeste saltzen, baina Ibañeta bezalako merkataritza gune bat ezin da edozein modutan galdu», bere ustez; «ni hementxe, Ibardinen jaio naiz, ikusi dut lehenagokoa eta berria, jateko adina ateratzen badut kontent nago. Segi dadila horrela».



Mugaz bi aldeetako bezeroak hurbiltzen dira bertara.

GOIKO

# Jokin Larrea

..... komikigilea

**B**erpizkundeko artistak arlo guztietan maisu ziren, artista orojakileak. Egun zaila da oso maila horretara heltzea, baina egon badaude horretan saiatzen direnak, eta horietakoa dugu Jokin Larrea. 'Napartheid' eta 'TMEO' al-

dizkarietako marrazkilaria, kartelgilea, publizista, koadro margolaria, eta Kojon prieto azabache y los Huajolotes taldeko musikaria —zentzu zabalean bada ere— artista orojakilela dela esan daiteke. Orojakileaz gain, izatez gaiztoa dela dio.

## «Izatez gaiztoa naiz»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Larreak izatez gaiztoa dela onartzen du, «txikiak garenok izatez bihurtak garelako». Gaiztotasun horrek bizitasun berezia ematen dio egiten duen guztiari. Ez da batere erraza astebururo jende askoren aurrean, eszenatoki baten gainean eta hozkailu baten apalategi bat koilaratxo batzuekin joz muikari moduan arrakasta lortzea. Edozein herritako jaietan askan botata amaitzea normalena litzateke, baina Jokin Larreaki —oraingoz behintzat— ez zaio horrelakorik gertatu, astebururo Kojon prieto azabache y los Huajolotesekin bere apalategiarekin eszenatoki eszenatoki. Baina hori ez da bere abilezia bakarra. Horretaz gain trebea da oso komikiak egiten —eskerrak, horixe baita bere lanbidea—, eta ziurrenik dagoeneko behin baino gehiagotan irakurri dituzue bere komikiak 'TMEO' edo 'Napartheid-en'. Komikigintzarako zaletasuna bere aitak eta Crumb komikilaria piztu omen zioten.

**EGUNKARIA.**— Zure lanak hamaika aldizkaritan argitaratu dituzu...

**JOKIN LARREA.**— Beno, egun 'TMEO' eta 'Napartheid-en' besterik ez dut parte hartzen. Arlo honetan nire lorpenik handiena 'Vivora-n' lauzpabost tira argitaratzea izan da. Lan pila bat egin behar izan nuen horretarako, eta ez dut uste horretarako horrenbeste lan egitea merezi duenik.


**EGUNKARIA.**— Nondik sortu zitzaizun komikigintzarako grina?

**LARREA.**— Nik txikitatik horretaz bizi nahi izan dut. Berehala, ordea, hori ezinezkoa zela sumatu nuen. Marrazkilaria bazara komikietan ezezik publizitatean eta

kartelgintzan ere aritu behar duzu iraun ahal izateko. Berrito ere ildoari eutsiz, esan beharra dago niri txiki-txikitatik gustatzen zitzaidala. Nire atariaren ondoan bazegoen komiki dendatxo bat. Horretan astero-astero komikiak erosten nituen, eta ordaindu ordez aitaren kontuan apuntatzeko esaten nion dendariari. 'Engantxatuta' nengoen eta ezin nuen utzi, nerretzat droga bat zen. Hiru edo lau urte eman nituen horrela, eta azkenean, 'Pumbi' izeneko komiki merkeenak besterik ez nituen erosten. Erosteari uzten banion dendaria zer edo zer sumatuko zuen, baina bestalde ez nuen zorra gehiago marduldu nahi. Azkenean dendaria gure etxera igo zen 10.000 pezetako zorrarekin. Aitak sekulako bronka bota zidan, eta horrek betirako markatu ninduen.

**EGUNKARIA.**— Noiz argitaratu zenuen zure lehen komikia?

**LARREA.**— Txikitari oso txarra nintzen. Ikastolan marrazki lehiaketa egin zuten, eta txarretarikoa izan nintzen, eta orduantxe hasi nintzen marrazkiak lantzen. Mortadela eta Filemonen marrazkiak kopiatzen hasi nintzen, eta horrelaxe segitu nuen Pastanaga argitaratutako Crumben lehen komikia esku artean eduki nuen arte. Orduantxe komikien bitartez nahi duzuna kontatuz gero ulertu nuen, ordura arte abenturak eta antzekoak kontatzeko besterik ez zutela balio uste bainuen. Horrek ere markatu ninduen. Pixka bat geroago, 16 urte nituela, Hernaniko jende pila batekin 'Gora-behera' fanzine 'anarkoan' nire lehen komikia argitaratu nuen. Egia esateko fanzine horretan ez nuen ezer ulertzen. Nik komikiak egiten nituen eta kitto, 'anarkoa' zer zen



ALBERTO BARANDIARAN

ere ez nekien. Nire komikiak oso txarrak ziren eta marrazkiari gidoiari baino garrantzi askoz handiagoa ematen nion. Orain, berriz, historia onak gustatzen zaikit, temak edo marrazkiak baino gehiago.

**EGUNKARIA.**— Aspaldidanik 'Musgoman' pertsonaiaren abenturak marrazten dituzu, eta azken bolada honetan Huajoloteenak ere bai. Zer kontatzen duzu zure istorioetan?

**LARREA.**— Denetarik. Huajoloteena gauza berezia da. Saio baikoitzean zer edo zer berezia ger-

atzen da, eta haiek komiki bat direla esan daiteke, edo komiki bat garela. Altxor izugarria da hori istorioak egiteko.

**EGUNKARIA.**— Kojon prieto azabache y los Huajolotes taldeko 'apalategijolea', komikilaria, kartelgilea eta abar. Ia-ia Berpizkundeko artista orojakilela dela esan daiteke.

**LARREA.**— Egia esateko ez naiz musikari trebeegia.

**EGUNKARIA.**— Nola hasi zinen ba Huajoloteekin?

**LARREA.**— Zazpi urte solfeo ikasten eman nituen. Ez nekien

zer egin, eta azkenean Huajoloteekin apalategia jotzen hasi nintzen ikasitakoa jendeaurrean erakutsi ahal izateko. Huajoloteak aspaldidanik ezagutzen nituen. Lore Etxean mexikar musikarekin alaitutako azkari interresgarriak egiten zituzten eta garai hartan norbaitek bonboa jotzen zuen erritmoa eramateko. Behin, berak huts egin zuen, eta ni bertan nengoenez, erritmoa eramateko instrumenturen bat bilatzen hasi nintzen. Makilaxoekin, botilekin eta beste hainbat gauzarekin saiatu nintzen, eta azkenean *rejilla* bat eta bi koilaratxoekin soinu ederra ateratzen zela ikusi genuen. Beraiekin jotzeko eskatu zidaten, eta horrela hasi nintzen. Ziurrenik dagoeneko damutu egin zaie.

**EGUNKARIA.**— Zein da horretarako *rejilla*-rik egokiena?

**LARREA.**— Egia esateko egokiena topatzea ez da batere erraza izan. Hasieran etxeko hozkailuaren apalategiekin aritzen nintzen. Soinu polita ateratzen dute, baina erraz hausten dira. Beste batzuekin saiatzea gomendatuko nioke honetan hasi nahi duen edonori, nire etxeko hozkailuan apalategi bakarra geratzen baita. Hoberena labekoa erabiltzea da. Horrelakoak ez dira hausten, eta soinu aldetik oso onak dira. Horren bitartez 'bakalao' kutsua ematen diot gure musikari, erritmo errepikatzailea eta gustagarria.

**EGUNKARIA.**— Uda honetako taldea zarete. Zer sentitzen duzu?

**LARREA.**— Kontent nago. Lortu dugun ospari esker

**EGUNKARIA.**— Komikiaz bazkaria ordaindu dit elkarriketaren truke, eta Antena 3n Gloria Estefani lehen postua kendu diogu 'hit-paradean'. Ezin da gehiago eskatu.

## NOISKIJATOR

© Zaldi Eroak

